

Tolosako Bizikidetza Foroaren aurkezpen ekitaldia
2014ko ekainak 11
Tolosa

Gaur aurkezten dugun Foro honek Tolosan Elkarrik zuen taldea du sorburu eta oinarri. Elkarriren talde hura osatzen genuenok iraunkorki bildu ginen, gatazka gainditzeko genituen ikuspegiak partekatu eta kontrastatzeko asmoz.

ETAk indarkeria amaitu ondoren, ordea, Euskal Herrian aro historiko berri bat abiatu zela ikusi genuen. Egoera berri honetan, bizikidetza hobetzeko, politika normalizatzeko eta bake-bideak jorratzeko nahikoa baldintza bazegoela iruditu zitzaigun. Baina kontziente ginen -eta gara- iraganak utzitako hainbat arazo konpondu gabe ditugula oraindik eta gatazka egoerak gizartean sortu eta sortzen dituen zauriak eta etenak ere hor daudela.

Une hartan, Elkarriren Tolosako taldearen lana amaitutzat eman ala ez eztabaidatu genuen. Eta hainbat bileraren ondoren, taldeak aurrera jarraitzea erabaki zuen, baina bere burua bermoldatuz:

- Aurrerantzean, taldea erabat autonomoa izatea hobetsi zen.
- Talde hartan ordura arte bildua genuen aniztasun ideologiko-soziala zabaltzea, Tolosan ditugun pentsamolde eta joera politiko nagusiak integratuz eta inongo pentsamolderik kanpora utzi gabe.
- Taldearen helburutzat, bizikidetza hobetzea hartu zen.

Taldea osatzen genuenok harremanetan jarri ginen hainbat pertsonarekin, talde honetan parte hartzeko eskatuz. Baldintza bakarrak helburuekin bat etortzea eta euskaraz ulertzea izan ziren, taldearen ohiko harreman hizkuntza euskara izaten jarraitu zedin.

Este Foro surge a iniciativa del grupo local de Elkarri. Aquel grupo se reunió sistemáticamente durante varios años, intentando aportar su grano de arena en la búsqueda de una solución al conflicto. Tras la decisión de ETA de abandonar la violencia, el grupo local de Elkarri se plantea la disyuntiva de disolverse o seguir trabajando. Tras varias reuniones el grupo decidió seguir adelante pero refundándose:

- En adelante, este grupo local sería totalmente autónomo.
- Se decidió ampliar el grupo, intentando abarcar todo el espectro ideológico-social de Tolosa.
- Se asumió como principal objetivo el trabajar por la mejora de la convivencia.

Taldekide berrien bila abiatu ginenean, bi dokumentu osatu genituen. Ez bat, bi baizik, talde barruko aniztasuna eta bide baten hasieran geundela adierazteko eta ez agiri itxi baten aurrean. Honela zioen agiri haietako batek:

Elkarrizketa da harremanak berreraikitzekeo tresna garrantzitsuena eta desberdinen arteko elkarreragina modu ez-gatazkatsuan bideratzeko bitartekorik egokiena. “Bestearen” duintasuna errespetatzera eta “bestea” behar bezalako prestutasunez entzutera prestatu behar dugu. Beste entzun eta jarrerak aldatu beharra dugu den-denok, salbuespenik gabe, horrek lagunduko baitigu bakea eraikitzen.

Entzuteak, enpatia sustatzen eta arazoei irtenbideak aurkitzen lagunduko digu. Elkarriketa, beraz, besteak entzuteko eta guztion ideia eta iritziekiko enpatia eragiteko tresna dugu. Norberaren ideia, emozio eta iritzietatik abiatu, besteenak entzunez, irtenbide berriak aurkitzeko aukera zabaltzen da.

Continúo leyendo algunos párrafos de uno de los documentos-invitación que se entregaron a los posibles nuevos miembros del grupo. Fueron dos, para dar a entender que no eran documentos cerrados sino un punto de partida:

El proceso de construcción de la paz es un trabajo complejo. Es importante que la sociedad tome parte en el proceso. A nosotros y nosotras, como parte de la sociedad que somos, nos corresponde intentar que las heridas provocadas por tantos años de violencia y conflicto, cicatricen y no vuelva a ocurrir nada parecido. Y que los derechos Humanos se respeten y no haya ningún tipo de discriminación. En último término, este proceso de reconciliación social deberá poner las bases de la convivencia futura.

Foro honen lehen bilera iazko Maiatzaren 8an izan zen. Hilabete hauetan egin ditugun bilera hauen helburu nagusiak, desberdinen arteko elkarriketa lantzea, bizikidetzaren gune anitz bat sortzea eta indarkeria egoera gainditzeko genituen ikuspegiak ezagutu eta eztabaidatzea izan dira.

Helburu nagusia, beraz, ez da izan talde barruan adostasunetara heltzea (adostasunak lortzea desiragarria izan arren), elkartu eta ikuspegiak partekatzea baizik. Eta baita gogoeta horiek gizarteratzea. Horregatik gaude gaur zuen aurrean. Iraganari begiratuz eta ditugun ikuspegi desberdinak ezagutuz eta ulertuz, gaur egun zer egin daitekeen aztertu nahi dugulako, eta elkarrekiko errespetuan oinarrituriko etorkizuna eraiki nahi dugulako. Gai ugari jorratu dugu orain arte egin ditugun bileretan: Bizikidetzaz zer ulertzen dugun eta berau sustatzeko bideak; talde honen egitekoa, norberak nola bizi izan duen egoera politikoa eta indarkeria Tolosan, jasan diren indarkeria motak, gertatutakoa eta horren ondorioak, indarkeria sufritu duten pertsonetikiko jokabideak, errelatoak, etab....

Desde su primera reunión el 8 de Mayo de 2013, este Foro ha mantenido un proceso de reflexión y discusión durante todo este curso. El objetivo principal no ha sido el llegar a acuerdos concretos, que si bien son deseables, todos y todas somos conscientes de las dificultades que entrañan, sino conseguir crear un Foro de encuentro, debate, análisis e intercambio, para que, analizando el pasado, ayudemos a construir un futuro de convivencia basado en el respeto mutuo.

Aipatu behar dugu, bide honetan Udalaren babesa izan dugula, Berak, ez du talde honen lana baldintzatu, bere autonomia errespetatuz, baina gure artean komunikazio bide zuzena dugu.

Lehen bilerak gure artean bakarrik burutu bagenituen ere, aurrera jarraitzeko laguntza metodologikoa behar genuela ikusi genuen. Ondorioz, Baketik eta Lokarriekin harremanetan jarri ginen eta euren artean duten hitzarmenaren baitan foroaren dinamizazio lanak Lokarrik gauzatu ohi dituen, abendutik aurrera Lokarriko teknikaria den Aitziber Blancok betetzen ditu bileren koordinatzaile lanak. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz baliatuz, Lokarriren laguntza ahalbidetu du.

Laguntza tekniko hori premiazkoa izan da, prozesu eta dinamika hauek konplexuak direlako, eta askotan ez delako erraza aurrera egitea. Eta, hain zuzen ere, taldeak bere buruari jarri dion helburu garrantzitsuenetako bat da, bide hau denok egin behar dugula, eta ez dugula nahi inor bidean gelditzerik.

Aurrera begira, gure eginkizun nagusia, gai horien inguruko gogoeta egitea eta gizartean ere, gogoeta hori piztea eta bultzatzea izango da. Taldeak egingo dituen bilerez gain, beraz, hausnarketa eta asmo hauek herritarrekin konpartitzeko bideak lantzea aurreikusten dugu.

No es un proceso fácil. Por eso hemos optado por la discreción. Pero también hemos creído oportuno y conveniente presentarnos ante vosotros y vosotras, porque el hecho de que hoy estemos aquí es ya un logro importante, que refleja una vez más, que si existe voluntad se pueden obtener resultados y superar dificultades que quizá en un principio ni siquiera preveíamos. Y porque queremos impulsar la reflexión sobre estos temas también entre la sociedad tolosarra. Después de esta presentación el Foro seguirá su proceso de debate y análisis pero prevemos compartir nuestras reflexiones de nuevo con la ciudadanía tolosarra en próximos actos o encuentros.

Tolosako Bizikidetza Foroko partaideak:

Jose Luis Aizpurua, Martin Agirrezabala, Antxon Agirrezabala, Kike Amonarriz, Mattin Amundarain, Joxe Agustin Arrieta, Pello Atxukarro, Garbiñe Biurrun, Sergio Ceberio, Arantxa Izagirre, Antton Izagirre, Onintza Lasa eta Xabier Maiza.

tolosabdforoa@gmail.com